

## 5. KANALAK

### **BILKETA:**

Mendizabala institutuko eraikin ezberdinetan kartelak itsatsi ditugu, jendeak gure proiektuaren helburua ezagutu eta betaurrekoak dohaintzan emateko aukera izateko. Kartel horietan, argi eta garbi adierazten da gure proiektuaren helburua eta betaurrekoak jasotzeko puntua, zentroko ikasle eta irakasle osoak lekua non dagoen jakiten duena. Kartelak aparte, publizitate bideo bat ere sortu dugu, bertan gure proiektuaren xehetasunak azalduz eta betaurrekoen puntuaren kokapena zehaztuz.

Horrez gain, gure kausa zabaltzeko eta gure helburuarekin bat egin nahi duen jende gehiagorengana iristeko sare sozialak erabiltzen sortu ditugu. Sare sozialen bidez, gure ekimenari buruzko informazioa partekatzen dugu eta ikusgarritasuna areagotzen dugu. Gainera, webgune bat sortu dugu gure enpresa gehiago zabaltzeko, jendea kausa ezagutzeko eta kausako dohaintzak errazago egiteko. Ekimen hauen guztien bidez, gure proiektuaren inguruko jakinmina eta interesa piztu nahi dugu, betaurreko gehiago bildu eta ahalik eta pertsona gehiagori laguntzeko.

Ikustean kartelen eta bideoaren bidez ezin izan genituela beteko beharrezko betaurreko guztiak, Mendizabalako zentroaren ikasgela guztietara joan ginen gure proiektua azalduz eta laguntza eskatuz. Behartsuenek behar dituzten betaurreko guztiak entregatu ahal izateko. Eragin handia izan zuen, eta horren ondorioz, askoz gehiago lortu genituen, espero baino askoz gehiago.

### **BIDALKETA:**

Bestalde, betaurreko guztiak bilduta ditugunean, paketatu eta Senegalera bidaltzen ditugu hegazkinez. Bi paketetan bidaliko ditugu, bidalketa ekonomikoagoa delako. Euleuk elkartearekin harremanetan gaude emandako betaurrekoak hara bidaltzeko, eta haiek behar dituztenei banatzeko. Dakar-retik 100 km dagoen herri txiki batera eramango ditugu betaurrekoak.

Elkarteak esan ziguten herri horu behartuenetako eta pobreetako bat zela, horregaitik erabako genuen gure dohaintzak hara eramatea eta elkarte honekin harremanetan jartzea.

Hau ez da izango behingo gauza bat eta ya, jarraituko dugu betaurreko asko biltzen eta bidaltzen, bertan betaurreko horiek behar dituzten jende asko dagoelako, eta guk ez ditugu erabiltzen ezertarako, zaharrak direlako edo graduazioa aldatu delako.